

Bizkaiko udaletako langileentzako prestakuntza
Zure udalak herritarrei argi hitz egitea nahi duzu?

Aldundiak hizkuntza argiari buruzko prestakuntza saio bat eskaintzen die Bizkaiko udaletako langileei. Helburua: hizkuntza argian edukiak idazten ikastea.

Zure udaleko langileek parte hartzea nahi baduzu, **idatzi** sat@bizkaia.eus **helbidera!**

Prestakuntza hori BFAren Hizkuntza Argia-Irakurketa Errazaren Programaren barruan kokatzen da. Administrazio hizkeraren eta herritarren arteko arrakala ikusita, Aldundiak 2021ean jarri zuen abian programa. Iaz foru erakundeetara zabaldu zen, eta aurten Bizkaiko udaletara.

Zertan datza? Zuen udaletako langileak sentsibilizatu eta trebatu nahi ditugu Hizkera Argiaren erabileran, herritarrengan eta premia bereziak dituzten taldeetan zuzeneko eragina duten edukiak egokitzeko (kontsulta-/ informazio-/izapidetze-edukiak).

Ez galdu aukera, **eman izena!**